

Unibertsitate- ikasketak eta beste goi-mailako ikasketa batzuk egiteko beken deialdia
2011-2012 Ikasturtea

BALDINTZAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK

EKONOMI BALDINTZAK (14. artikulutik 19.era)

A) FAMILIAREN IRABAZI GARBIAK (16. artikulua)

Beka lortzeko eskatzaileak ezingo du 3. errenta-muga gainditu. Eskatzailearen familiaren irabaziak zein errenta muga daudenaren arabera, bekaren zenbatekoa aldatuko da.

	1. ERRENTA-MUGA (eurora bitartean)	2. ERRENTA-MUGA (eurora bitartean)	3. ERRENTA-MUGA (eurora bitartean)
Kide konputagarri 1eko familia	3.962	11.937	14.826
2 Kide konputagarriko familia	7.646	19.444	25.308
3 Kide konputagarriko familia	11.143	25.534	34.352
4 Kide konputagarriko familia	14.613	30.287	40.796
5 Kide konputagarriko familia	18.076	34.370	45.598
6 Kide konputagarriko familia	21.463	38.313	49.224
7 Kide konputagarriko familia	24.773	42.041	52.810
8 Kide konputagarriko familia	28.009	45.744	56.380

B) ONDARE ETA JARDUERA EKONOMIKOEN MUGAK (19. artikulua)

Beka lortzeko ezingo dira gainditu gehienezko muga hauek:

- **HIRI-FINKAK:** Ohiko etxebizitza ez den hiri finken katastro balioen batuketak ezin izango du **42.900** euroko zenbateko gainditu. Katastro balioak berrikusita dituzten Araba eta Gipuzkoako lurralde historikoen kasuan 0,6 eta 0,3 koefizienteak aplikatuko dira hurrenez hurren, Gasteiz eta Donostiako berrikusitako udalerrietan izan ezik zeinetan 0,25 aplikatuko da.

Ohiko etxebizitzaz gainera, familia-unitatea beste bi etxebizitzaren jabe bada, beka ukatu egingo da

- **LANDA-FINKAK:** konputagarri den kide bakoitzeko, **13.300** euroko balio katastrala.

- **BALORE HIGIGARRIAK:** **2.100** euroko kapital mugikorren etekin garbia (familia unitateari dagozkion ondare irabazi eta galeren arteko diferentzia ere gehitu egiten da).

Familiak ondare-elementu bat baino gehiago izanez gero, horietako bakoitzaren balioaren ehunekoa kalkulatu da, dagokion errenta-mugaren arabera. Beka ukatua izango da ehunekoen batuketa ehunetik gorakoa denean.

Ondare balioen zenbaketa egiteko aplikagarri izango da %50eko kenketa, mantentzaile nagusia, bere ezkontidea edo eskatzailea ez diren kide konputagarrien ondare elementuen balioan.

- **JARDUERA EKONOMIKOAK**

Eskatutako dirulaguntza ukatu egingo da familiako kide konputagarrietako bat 2010ean **169.470** eurotik gorako fakturazio-bolumena izan zuen ekonomi jarduera bateko titularra baldin bada.

IKASKETA-BALDINTZAK (20. artikulutik 22.era)

1. Beka lortzeko, ikasleak gutxienez titulazio edo espezialitate bakar bateko ikasgai- edo kreditu-kopuru batean matrikulatuta egon beharko du 2011-2012 ikasturtean. Gutxienerako kopuru horrek gorabeherak izango ditu, ikasketen arabera:

-GRADUKO IKASKETAK ETA MASTER OFIZIALAK: 60 kreditu

-GAINERAKO UNIBERTSITATE-IKASKETAK EDO GOI-MAILAKOAK: Kredituka egituratutako ikasketa-planetan, kreditu-kopurua zehazteko, formula hau aplikatuko da: ikasketa-planeko kreditu guztien ehuneko laurogeita bost zati ikasketa-plan horretarako aurreikusitako ikasturte-kopurua.

2. Beka lortzeko, gainera, eskatzaileak emaitza hauek lortu behar izan ditu aurreko ikasturtean:

-MASTER OFIZIALAK:

- Masterraren lehenengo kurtsoan Masterrari bide ematen dion ikasketetan batezbesteko nota gutxienez 6 puntukoa izan behar da (ikasketa teknikoetan, 1,17ko koefizientea aplikatuko zaio lortutako batez besteko notari).

- Bigarren ikasturtean, gainditu egin beharko dira aurreko ikasturtean matrikulatutako kreditu guztiak.

- GRADUKO IKASKETA ETA GAINERAKO UNIBERTSITATE-IKASKETAK:

- Ikasketa teknikoetan, gainditu gabeko kreditu-kopuruak ezin izango du gainditu matrikulatutako kredituen %50

- Gainerako ikasketetan, berriz, ezin izango da gainditua aurreko ikasturtean matrikulatutako kredituen %35.

3. Konbalidatutako edo egokitutako kredituak, ez dira kontuan hartuko inolako ondoriotarako.

4. Bertaratu gabeko unibertsitateetako ikasleek edo matrikula partziala egiten duten ikasleek, ikasketak eta lana bateragarri egiteko, gutxienez hogeita hamabost kreditutan matrikulatu beharko dute.

BEKAREN OSAGIAK ETA ZENBATEKOAK (2. artikulutik -10.era)

Prezio publikoen zenbatekoa (3 errenta muga)	Irakaskuntza zerbitzuengatikozko prezio publikoei dagokion zenbatekoa da. Bekaren osagaien bat jasotzen duten ikasle guztieei emango zaie, EAE barruko eguneroko garraioa jasotzen dutenei izan ezik. Lehenengo eta bigarren matrikularen kredituak hartuko ditu barne.
Soldata (1 errenta muga)	3.500 € , Graduko ikasketak badira
Osabidezko laguntza (1 errenta muga)	2.800 € , Graduko ikasketak izan ezik, beste gainontzeko ikasketa guztiak badira
Hiriarteko garraioa (2 errenta muga)	5 km.- 10 km.: 192 € 11 km. - 30 km.: 386 € 31 km. - 50 km.: 763 € 51 km.- 200 km.: 993 € 200 km.tik gora: 1592€
EAE barruko eguneroko garraioa	Gutxienez 380€ (2 errenta muga) Gutxienez 196€ (3 errenta muga)
Egoitza	3.772€ (1 errenta muga) 3.336€ (2 errenta muga) 2.903 € (3 errenta muga)
Material didaktikoa	307€ (2 errenta muga) 239 (3 errenta muga)

OHARRA: Argibide gehiago behar izanez gero, begiratu deialdiaren Agindua.